



BARREN
TOKIKOM



EL KIA BEREKIK JAZARREN
GELDIAK DIZAGU

GURE IKASTOLAN
JAZARRENIK



10
EGUN
KIA

ESKAINZA
BEREZIAK
Otsailaren
9tik 20ra



The Power to Surprise

NAIA CAR

Apalategi auzoa, 1

Eibar. Gipuzkoa

www.naiacar.com

943 70 70 33

Aprobetxa itzazu 10 Kia egunak. Zatoz Kia-ren aukera zabala ezagutzera.
Teknologian azkena, prezio ezin hobean.

Kontsumo konbinatua (l/100 km): 4,0-7,6. CO₂ emisioak (g/km): 104-177. *Kontsumatze C/aren berraren erakutsia



Led 32" Philips
32PHS4001/12

USB
ULTRA FINA
3XHDMI



Led 55" JVC
LT-55VU83B

4K UHD - 4XHDMI
SMART TV
3X USB
1500 HZ CMP

**MILAR
BIRE**

Ubitarte, 11
943 741 487
bire@milar.es

A composite advertisement for Elgoibar Ikastola. On the left is a photo of a classroom with children at desks. On the right is a photo of children playing with straw. The central text includes the school's logo, name 'elgoibar ikastola', contact information, and a slogan: 'eskerrik asko gurean izena eman duzuen guztioi!'. It also features logos for 'IKASTOLA EREDIA', 'HEZKUNTZA ERALDATZEN', 'KIVa ikastola', 'Bukam', 'Eskola Iraultzailearen Ziurtagiria', and 'Euskadi'.



Astelehenean, otsailaren 13an,
banatuko dugu
Elgoibarko eta Mendaroko
zerbitzuen gida komertziala





ABEL ARRIAGA



*“Heriotza ikusten dugu eutanasiaren atzean,
baina ez gara gai gaixoaren mina eta sufrikarioa ikusteko eta ulertzeko”*

Orain hilabete inguru entzun nuen Euskadi Irratiko *Faktoria* saioan, bere ahizpa Esti lagun zuela. Egunkari gehienetan ere azaldu zen bere kasua. Larraitz du izena, eta 40 urte ditu. Elikagaiak irensteko, sekulako arazoak ditu. Ura kontrako eztairitik joaten zaion bakoitzean, ez da erraza deskribatzea ingurukoen, eta batez ere, bere estutasuna. Pairatzen duen hezurretako mina jasanezina da. Ezin ditu mugitu gorputzeko atalak. Hitz egiteko ere, arazo handia du. Metro eta 85ekin, ez da 45 kilotara helitzen. Burua argi badauka ere, ez da gai bere kabuz ezer egiteko. AEA du, alboko esklerosi amiotrofikoa: gaitz sendaezin eta degeneratiboa. 12 urtez borrokatu ondoren, gaitzaren azken fasean sartu da. Orain, sufrikarioa lehenbailehen bukatzea du desio. Heriotza duina izateko eskubidea aldarrikatzen du, baina momentuz ukatu egiten diote. Behartuta dago bizitzera, behartuta sufritzera. Bi aukera geratzen zaizkio: jateari uztea eta sedazioa. Bigarren aukera legeak ez

dio onartzen. Larraitzek legearen barruan eman bukatu nahi du sufrikarioa, klandestinitatean aritzea, jateari uztea bezain duingabea baita. Heriotza duina nahi du: bere bizitzarekin zer egin berak, ez beste inork, erabakitzea.

Gai konplexua da, delikatu, heriotza bera ere halaxe delako. Belgikan, Luxenburgon eta Herbehereetan esaterako, eutanasia legez arautua dago. Ondo ala gaizki, erantzun bat eman diote arazoari. Debekuaren hautua egin dugu guk. Heriotza ikusten dugu eutanasiaren atzean, baina ez gara gai gaixoaren mina eta sufrikarioa ikusteko eta ulertzeko.

Larraitzek eta bere familiak publiko egin nahi izan dute heriotza duinaren debatea, politikarien agendetan eragin, kontzientziak astindu... Esaldiak dio esperantza dela galtzen den azkena, baina Andoni Egañari aspaldi irakurri nion duintasunak beharko lukeela. Izan ere, duintasunik gabe ez gara inor, Andoitz.



ANDOITZ AGIRREGOMEZKORTA



*“Bizitzan askatasunez jokatzeko aukeria baldin badaukat,
zergaittik ez hiltzeko orduan? Zein egon leike nere erabakixaren gaiñetik?”*

Kaixo, Abel. Neretzako ez da gai delikaua. Zeiñi interesatzen jako Larraitzek sufrimendua amaittu nahi izatia gai delikau bat izatia? Badira 18 urte Ramon Sanpedron kasu entzutetsua gertau zanetik, eta antzera gaudela uste dot. Larraitzen kasua iritsi da oin, eta berdiñetan gaude.

Diozun bezela, Espainiako legien arabera, eutanasia delitua da. Nola leike hori, nork bere burua hiltzia delitua ez bada kontuan hartuta? Delitua ez dan zerbait egiten laguntzia delitua da. Surrealista.

Heriotza duinaren legia onartu zaban Eusko Legebiltzarrak oin dala zazpi hilabete, baiña nere ustez, pauso haundixagua emateko aukeria galdu zan. Ez da nahikua. Izenburu horrekin,

ahalik eta sufrimendu txikixenarekin hiltzen lagatzeko legia atera zeben aurrera, baiña eutanasiatik urrun dago oindiok. Izan ere, tarte etiko haundixa ikusten dot batetik bestera. Duintasun aldetik ez da gauza bera hiltzen laga ala hiltzen laguntzia.

Heriotza bizitzan parte da neretzat. Bizitzan askatasunez jokatzeko aukeria baldin badaukat, zergaittik ez hiltzeko orduan? Zein egon leike nere erabakixaren gaiñetik noiz eta nola hilken erabakitze orduan?

Horregaittik esaten dot ez dala gai delikaua. Kontua garbi ikusten dot. Politikarixengandik ulertzen ez doten beste gauza bat da hau. Zein interes talde edo lobby daude hórrek erabakixon atzian? Kasu honetan ere, gizartia politikarixen aurretik dixe.



ENETZ EZENARRO

Matekatika irakaslea EHUen

Oi! Gu hemen bidean galduak

samur horietako bat. Behin eta berriz gauari loa ukatzeraino begietan iltzatuta, Uriarte anderea.

Eta ez bide zara konturatu muga-mugako egoera tamalgarri honetan ere, zentzu pixka bat ezartzeko parekorik ez duen bidelagun dakizukeela prozedimenduaren gaineko oinarritzko hausnarketa formal batetik abiatzea.

Hartu daigun oposaketari dagokion partea. Jo daigun 72 direla gaitegi ofizialak bata bestearen atzetik, hoztasunez, errukirik gabe zerrendatutako

“Behin eta berriz gauari loa ukatzeraino begietan iltzatuta, Uriarte anderea”

ikasgaiak. "Asko dira!" errepikatuko diezu zeure ahaleginaren handia hasi aurretik aitortu arazi nahiko diezun dokababeei. Jakinekoea da, azterketa egunean, 72 horietatik zoriz lau gai aukeratuko dituztela eta horietako bakarra garatu beharko duzula. Egin kontu, kasu konkretu horretan, 10 gai ikasita, %45ekoa dela lau horietakoren bat ikasitakoen artean egoteko probabilitatea. 11 gai ikasita, %49koa. 12 gai ikasita, %53koa. 20 gai ikasita, %74koa. 30 gai ikasita, %89koa. 35 ikasita, %94koa!

Badakizu: deskuidatuta ere ez denak ikasi. Denboraren arabera, 10 eta 20 bitartean ondo. Ziurtatzeko ikasi 30. 68 ikasita tokatzen ez bazaizu, segurunez 72 ikasita ere ez litzazuke tokatuko. Kontuz, horrelakoak ere bada eta!

Jo daigun Uriarte andereak Gabon bezperatan, gehiengo sindikalak otoi eskatutakoari (deialdia urtebete atzeratzea) *kaixomutil* eginez iragarritako hezkuntzako EPEa daukazula, ez nahita, halabeharrez (halabeharrez!) begiz jota. Bigarren gerlan uboote aleman beldurgarri haiek zamaontzi amerikarrak radarraren pantailan nola, dezula zuk zeuk ere, zeure eskasean, zeure eskatu gabeko txikitetasun madarikatu horretan, zeure nahi eta ezin tristeago, ezin baldarrago, ezin ezgauzago horretan, begi ninietan iltzatuta, nik ez dakit zenbat funtzionario plaza



BARREN

ARGITARATZAILEA:

ELGOIBARKO IZARRA
Eusko Legeburuaren Argitaratzailea

Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR
943 744 112
Publizitatea: 943 743 704
barren.publi@elgoibarkoizarra.eus
barren@elgoibarkoizarra.eus
www.barren.eus

BARRENEk bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarriak lekuz aldatzeko eskubidea. BARRENEk ez du bere gain hartzen Iritzia, Zofoak Beleari eta eskutitzak ataletan adierazitakoen erantzukizunik. **KOORDINATZAILEA** Ainhoa Andonegi **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Ainara Argoitia **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA** Zalao Arnaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIAK** Amaia Arizabalaga, Nerea Osoro **KOLABORATZAILEAK** Garazi Ayesta, Nora Hadi, Ibon Serrano, Arkaitz Irureta, Nora Kortaberria, Nerea Gurrutxaga, Andoitz Agirregomezkorta, Abel Arriaga, Inma Mugertza, Ander Izagirre, Ana Alberdi, Eneko Iturbe, Eire Vila, Mikel Olaizola, Manu Sanchez, Unai Villena, Iosu Juaristi, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lamelas, Jose Luis Azpillaga, Julen Ansoa, Edurne Izagirre, Alain Ulazia, Paula Heras, Enetz Ezenarro, Jesus Jimenez, Mikel Artola, Iñaki Odriozola, Ander Mujika, Ander Sorraluze, Arantza Etxeberria, Irati Agirreazaldagi, Maddi Mendibil, Haizea Berstein **INPRIMATEGIA** Gertu Koop.E. **TIRADA** 4.860 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 **ISSN** 1138-1855

BABESLEA:



LAGUNTZAILEAK:



Gipuzkoako Foru Aldundia

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hezkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

BARRENEK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANA eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

▶ FALTA DIRENAK GOGOAN HARTUTA

Giro berezia zegoen Kalegoen plazan bildu ginenean. Narbaizak azaroan esan zigun agur, hainbeste urtean gurekin koplari lanetan jardun ondoren. Gure taldearekin bi urtez santa eskean jardun zuen Azpillaga bertsolaria, berri, bezperan lurperatu zuten. Goian beude biak! Gure txoferrak ere kale egin zigun; operatu berri dute, eta etxean geratu zen. Gogortu hadi azkar, Joan Mari! Jendea falta zen, baina azkenean 23 lagun bildu ginen baserri kantuan eta eskean irteteko.

Hamabi orduz jardun genuen. 57 etxetan kantatu genuen, baina ezin izan genuen aurreikusitako guztietatik pasa. Pena eta amorrua ematen digu horrek, eta barkamena eskatu nahi dizuegu gure zain egon zineten baserriarroi. Nahi dugu arazo horri nolabaiteko irtenbidea eman, baina ez dakigu nola. Baserri auzoetako lagunekin berba egin eta denon artean topatu beharko dugu estimatzen gaituzten etxeetara iristeko bidea.

Baina penaren eta amorruaren gainetik, poza eta emozioa bistaritzen dira otsailaren 4an. Askoren artean eusten diogu hain gurea den ohitura zaharriari, eta Agedak indarra ematen badigu, eutsiko diogu baserriarrok "nahikoa da!" esan arte.

Eskerrik asko, benetan, zuen etxeetako ateak zabaldu eta hain eskuzabal hartu gaituzuen baserriarroi. Eskerrak, baita ere, Sigma jateko Jose Inaziori, eguerdiko baba-jana prezio berezian eskaintzearen. Eta eskerrik asko, azkenik, Agustini eta Valentini, egunaren amaieran Aiastiako soziedadeko atea zabaltearen. Agustini bihotzez eskertu nahi diogu gainera, aurreko egunean amari lur eman ondoren afaria prestatzeko indarrak bildu zituelako. Handia haiz, Agustini!

Elgoibarko Izarrako Santa Ageda taldea

▶ SHUKRAN / ESKERRIK ASKO

Dagoeneko Bilbon da Eibar, Elgoibar, Mendaro eta Deban jasotako janari guztia (4.450kg janari eta konpresa), Euskal Karabana Solidarioaren kamioetan sartu eta otsailaren 25ean Tindoufeko (Aljeria) sahararren kanpamenduetarantz irteteko zain. Beraz, Eibar-Sahara Elkartetik eskerrak eman nahi dizkiegu janari bilketan lagundu diguten elgoibartar eta mendaroar guztiei, erosketetara joan eta tartetxo bat eskaini digutelako. Eskerrak ere bai hau posible egiteko gurekin urtero kolaboratzen dutenei: BM, Eroski (Ezenarro eta Sta.Ana), Coviran eta Puxika, IMH eta Herri Eskola. Era berean, aukera hau aprobetxatu nahi dugu urtean zehar helduentzako pardelez eta botikaz hornitzen

gaituen Etxeberria Farmaziari eskerrak emateko. Eskerrak baita ere BARREN aldizkariari. Eskerrak denoi.

Eibar-Sahara Elkartea

▶ ESKERRIK ASKO

Hilabete pasatu da jada Gabon Zaharreko ferian txosna jarri genuenetik. Lana ez zen, ordea, abenduaren 31ko 14:30ean bukatu eta urtarrilean zehar balantzea egin eta hurrengo urtera begirako hobekuntzak identifikatzen jardun dugu.

Iritsi da, beraz, 2016ko edizioa ixteko garaia, baina kontu garrantzitsu bat falta zaigu: parte hartu duzun guztioi zuen konpromisoa eskertzea. Mila esker beraz, Amaro, Armueta Harategia, Beristain, Logistika Banaketa S.L., Bernardo Ecenarro, Deben, Elgoibarko Udala, Eroski, Ziarda Harategia, eta nola ez, antolaketan eta egunean bertan parte hartu duen 80tik gora guraso eta profesional taldeari.

Mila esker benetan. Azkenik, gogoratu nahi dugu txosnatik ateratako dirua herrian garatuko diren ekimenetan erabiliko dela, Pilota Egunean eta Jose Gurruixaga Krosean hain zuzen ere. Txosnaren izaerari jarraituz, herritik herrira!

Ikastolako Gabon Zahar txosnako antolatzaile taldea

Jon Aranoa
Guillermo Torres

Elgoibar
Albaitaritza

San Roke, 26 - 20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)
Tel.: 943 740 704 - 639 047 337
Asteleheneik ostekera: 11:00 - 13:00 / 16:30 - 19:30
larunbatak: 11:00 - 13:00

leapaindegi zerbitzua daukagu.
Deitu ordua hartzeko.

943 030 275
Bernardo Ezenarro, 2
AHOLKULARITZA

Badakazu zoru klausularik?

Garoa Consultingen hipoteka mallegua aztertuko dizugu. Banketxeari behar baino gehiago ordaindu diozuna erreklamatzeko tramiteak egingo dizkizugu, eta baita hipoteka formalizatzeako gastuak erreklamatzeko ere. Banketxearekin adostasun batera iritsi ezean, erreklamazioa judiziala ere bideratuko dizugu.


Mendia eta zientzia uztartuko ditu Morkaikok antolatutako hitzaldi-zikloak

Mendi eta natura guneen zientzia ezagutzaren gaineko saioak antolatu ditu Morkaiko Mendizale Elkartek, mendiarekin lotura duten ikerketa zientifikoak dibulgatzeko. Hiru hitzaldi eskainiko dituzte, eta hizlarien artean Elgoibarko zientzialari eta mendizaleak ere izango dira. "Mendizaletasunak eta natura ezagutzeko griañak lotura handia dute ikerkuntza zientifikoarekin, eta, horregatik, zientzia-ezagutza modu erraz eta dibulgetzailean publiko orokorrarengana hurbiltzeko apustua egin dugu", azaldu dute Morkaikoko kideek. Mendizaletasunaren eta naturaguneen inguruko ikerketa-zientifikoak, bidaiak, espedizioak eta kultura proposamenak ezagutzera eman nahi dituzte. Hitzaldi-sortak hiru egunetan egingo dituzte: otsailaren 22an lehenengoa, martxoaren 2an bigarrena eta martxoaren 8an, azkena. Saio guztiak Elgoibarko Kultur Etxeko hitzaldi-gelan izango dira, 19:30ean. Saio bakoitzean gai zabal bat izango dute hizpide, eta bi pertsona izango dira



hizlari lanetan arituko direnak. Hizlarien artean Antton Alberdi, Eñaut Izagirre, Ander Izagirre eta Inma Mugertza elgoibartarrak ere daude.

Maialen Armendiak irabazi du Gaztelekuak antolatutako Mugertza krosari buruzko Instagram lehiaketa



Maialen Armendia Gabilondok aurkeztutako argazkiak irabazi du Elgoibarko Gaztelekuak Mugertza krosari buruz antolatu duen Instagrameko lehiaketa, eta 150 euroko saria jaso du. Aurkeztutako argazkiak Gaztelekuan jarri dituzte ikusgai, eta boto gehien lortzen dituenak eskuratuko du Publikoaren Saria. 13 eta 18 urteko nerabeek emango dituzte botoak aste honetan zehar, eta boto gehien jasotzen duen argazkiaren egileak 100 euro irabaziko ditu.

Mozorro tailerra antolatu dute hilaren 18rako

Familia hizkuntza transmisioa lantzeko, mozorro tailerra antolatu du Elgoibarko Izarrako Atxutxiamaikaren Kiribilduz egitasmoak, Elgoibarko Udalarekin lankidetzan. Otsailaren 18an egingo dute, eta HH4-LH3 adin tarteko umeentzako eta euren gurasoentzako izango da. Atxutxiamaikakoek merkatu plazan duten lokalean (bigarren solairuan) eskainiko dute saioa, 0:00etatik 13:00etara. Interesatuak 5 euro ordaindu beharko dituzte, saioan bertan (Elgoibarko Izarrako bazkideek, 4,5 euro). Plazak mugatuak dira, eta otsailaren 14a izango da izena emateko azken eguna. Informazio gehiagorako: 943 741 626 (Jon).



50 sinadura falta zaizkio Gure Esku Dago taldeari 1.500era iristeko



Elgoibarko Gure Esku Dago Elgoibarren errolatutako herritarren %10en sinadurak behar ditu herri galdeketa egin ahal izateko, 1.500 bat sinadura hain zuzen ere. Dagoeneko 1.450 lortu dituzte, beraz, 50 sinadura falta zaizkie herri galdeketerako protokoloak agintzen duen kopurura ailegatzeko. Otsailaren 17an amaituko da sinadurak biltzeko epea. Hortaz, datozen egunotan kalera irtingo dira sinadura gehagoren bila. Otsailaren 12an, domekan, 11:30etik 13:00etara bitartean Herriko Antzokiaren kanpoaldean egongo dira. Sinatu ahal izateko beharrezkoa da 16 urte beteta izatea eta Elgoibarren errolatuta egotea.

Erreminta makinari buruzko euskarazko tesia aurkeztu du Xabier Cearsolok IMHn



Estreinakoz defendatu dute fabrikazio aurreratuaren eremuko doktorego tesia IMHn, EHUrekin egindako elkarlanari esker. Tesiak *Diamantagailuaren Higadura-ren azterketa esperimentala artezketa prozesuan* du izenburua, eta euskaraz garatu du Xabier Cearsolo elgoibartarrak. Tesiaren lanketa EHUren zuzendaritzapean egin du. Aitzol Lamikiz epaimahaiburuak IMH zoriondu du eremu honetan egiten duen lanagatik, EHUrekin duten elkarlanagatik, tesia euskaraz egin izanagatik eta arlo teknologikoan "ekarpen garrantzitsua" izan delako.

Horrenbestez, zortzi dira IMHren Ingeniaritza Dualean irakasle ari diren doktoreak eta hurrengo ikasturtean beste hiru gehituko zaizkie.

Altsasuko gertakarien gaineko hitzaldia

Guardia zibilen eta hainbat herritarren artean Altsasun izan ziren gertakariei buruzko hitzaldia eskainiko dute Entzun Altsasu! ekimeneko kideek, *Piztu desmilitarizazioa* izenburupean. Euskal Herriko eskualde guztietara heltzea dute helburu, eta Elgoibarrera ere etorriko dira, Jaiki taldearekin elkarlanean. Martitzenean izango da saioa, 19:30etik aurrera, Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

Elgoibarko geologia ezagutzeko ibilaldia egingo dute herrian zehar

Inma Mugertza geologoak ibilaldi bat eskainiko du herriko kaleetan zehar, Elgoibarko geologia ezagutzeko. "Geologiak inguratzen gaitu", esan du Inmak. Portaleek, etxeek, kaleek, frontoiek... iragan geologikoa gordetzen dute, eta herriko kaleetan bitxikeria geologiko interesgarriak aurki daitezke. Portal batzuetan koral fosilizatu ikusgarriak daude, zenbait denda eta tabernatan marmola eta gneisa bezelako harri metamorfikoak ere badaude, eta, baita granito eta harri bolkanikoak ere. Harrien hizkuntza ikasten hasteko ibilbide egokia eta gomendagarria izango dela aurreratu du. Martitzenerako jarri dute hitzordua, udal-txe azpian, 18:00etan. Bi ordu eta erdiko ibilaldia izango da, eta edozein herritarrek parte hartu dezake. Gupildun aulkian ere joan daitekeela jakinarazi dute.

Ogigintzari buruzko ikastaroa eskainiko dute

Sosola baserrikoek ogigintzari buruzko ikastaroa eskainiko dute datorren astean, hilaren 16an, Txillarre ekodendan. Ikastaroa doan izango da. 18:00etan hasiko da saioa, eta amaieran, beraiek egindako ogiak dastatzeko aukera eskainiko dute.

“Erasotzaileak indarra baldin badu, geuk ematen diogulako dela dio Kivak”



▶ JON VAZQUEZ

ELGOIBAR IKASTOLAKO ORIENTAZIO SAILEKOA

Eskola jazarpena murrizteko Kiva programan sartu da Elgoibar Ikastola, Ikastolen Elkarteko 51 ikastolekin batera. Finlandiako Turkuko Unibertsitateak garatutako programa da Kiva, eskola jazarpenari aurre egiteko “programarik eraginkorrena”. Hamar bat urte dira Finlandiako eskoletan martxan jarri zutela eta emaitza ikusgarriak lortu dituzte. Urtebetean %78 gutxitu zituzten eskola jazarpen kasuak han. Jon Vazquez Elgoibar Ikastolako Orientazio Saileko kideak Kiva ikastetxeetan nola lan egiten duten ikusteko aukera izan du Turkun.

- AINARA ARGOTIA -

◆ Zerk bultzatu du Elgoibar Ikastola Kivan parte hartzera? Beharrak?

Errealitateak. Finlandiatik etorri zitzaizkigun Kiva programa aurkeztera eta ikusi genuenean gure Bizikidetza Planarekin bat zetorrela eta guk lantzen genituen baloreak lantzen zituztela, pentsatu genuen aproposa izango zela gure Bizikidetza Planean gehitzeko.

◆ Finlandian izan zara zu zeu ere. Zertan?

Zazpi lagun joan ginen hara eta horiek ibili gara gero bat egin duten gainerako ikastoletan sortu diren Kiva taldeak formatzen. Izan ere, egitasmo honetan ikastola bakoitzak bere Kiva taldea du, hiru-lau profesionalen osatutakoa, eta horiek dira eskola jazarpena antzematen den kasuan nola erantzun aztertuko dutenak. Elgoibar Ikastolaren kasuan, lau lagunek osatzen dugu Kiva talde hori. Urrian joan ginen hara gu, eta urtearen azkeneko 52 ikastolako profesional guztiekin geneukan konpartitua han jasotakoa. Gero, urtarilean, gurasoentzako formazio saioak egin ditugu, eta orain, ikasleekin ari gara lanean.

◆ Zerk egiten du horren berezi Kiva? Zer ordezkatu edo osatzera dator?

Kivak ikastola komunitate osoa hartzen du bere barnean: ikasleak, irakasleak, langileak eta gurasoak. Hala, eskola jazarpenari aurre egitea guztien eginkizuna dela azpimarratzen du. Orain arte, legeak ezarritako protokoloa jarraitzen genuen jazarpen kasuetan, eta protokoloa betetzeko dago, jakina, baina Kivak egiten diguna da jarraibideak oso zehaztuta eta sistematizatuta eman. Bi eremutan egiten du lan Kivak: batetik, prebentzioa lantzen du Lehen Hezkuntza osoko ikasleekin. Bestetik, esku-hartzea lantzen du; ikastetxean eskola jazarpen kasu bat identifikatzen denean zer eta nola egin behar den esaten digu. Metodologia hezitzailea erabiltzen dugu, zigorrak utzita. Jarrera erasotzailea dutenekin kontzientziazio lana egiten da, hizketaldien bidez.

◆ Lehen Hezkuntzara mugatzen da Kiva?

Prebentzio lanean bai, baina esku-hartzea DBHn ere egiten da, *bullying* kasuak adin guztietan ematen direlako. Finlandian oraintxe ari dira DBHn prebentzioa lantzen, eta proiektu pilotua da. Aurreikusten da lehenengo emaitzak jaso eta balorazio bat egin ostean zabalduko dutela mundura.

◆ Eskola jazarpenari aurre egitea guztion eginkizuna da. Zein da, baina, gutako bakoitzaren ardura?

Guk, *bullying* hitza entzuten genuenean, beti bereizten genituen erasotzailea eta biktimia, baina Kivak esaten diguna da talde osoa hartu behar dela aintzat: erasotzailea, biktimia, erasotzailea animatzen eta xaxatzen dutenak,

eta egoera hori ahalbidetzen duten besteak: onartzaile isilak. Euren jarrera kontrakoa izan arren, eraso baten aurrean beste aldera begiratzen dutenak dira onartzaile isilak. Erantzukizun handia dute horiek, eta horiengan eragin behar dugu. Hori ere ikasiko dugu: uneoro komunikatzen ari garela. Hau da, erasotzailearen kontra ezer egiten ez dugunean ere komunikatzen ari garela; ezer egiten ez dugunean, eraso onartzen dugula ari garelako esaten.

♦ **Bost egun egin zenituen zuk Finlandian. Zer harritu zintuen gehien?**

Kiva programaren sortzaileekin egin genituen lau egun, programaren filosofia barneratzen. Bosgarren egunean, klase praktikoa batean izan ginen, programa nola aplikatzen zuten ikusten, eta ikusi genuen klaseak zein praktikokoak eta partehartzaileak diren. Hausnarketa eta autoebaluazioan oinarritzen dira saiokoak. Hainbat trebezi sozial ere lantzen dituzte, eskola jazarpenaren aurrean taldekide bakoitzak zer egin dezakeen aztertzeko. Beharbada gehien harritu ninduen zera izan zen: *bullying* hitza natural-natural erabiltzen zutela ikustea. Guk sahiestu egiten dugu askotan hitz hori, eta isilduta, errealtatea desitxuratzen dugu.

♦ **Zer ezaugarri ditu eskola jazarpenak?**

Nahita egindakoa da, konstantea da eta botere-harreman batean gertatzen da. Gure irudimen kolektiboan eskola jazarpena eraso fisikoari lotua agertzen da gehienetan, baina ume bat nahita baztertzea ere bada jazarpena. Oso garrantzitsua da beste hau ere: eskola jazarpenaz ari garela askotan esaten dugu berdinen artean gertatutako zerbait dela, baina ez. Berdinak figurak dira, biak ikasleak direlako, baina erlazioa ez da berdinen artekoa, batek boterea duelako eta bestea azpiratua dagoelako.

♦ **Hamar ikaslelik batek sufritzen ei du eskola jazarpena. Kasu batzuek, muturrekoak denak, sekulako oihartzuna izaten dute hedabideetan, eta beste asko ez dira inora iristen. Irudipena daukat kasu askotan ikastetxeek ezkutatzera egiten dutela, euren izen ona babeste aldera. Zer diozu?**

Gertatuko da hori ere, baina garbi dagoena da denontzako dela ona eskola jazarpena ikastetxe guztietan ematen dela aitoritza eta hori amaitzeko baliabide guztiak erabiltzeko konpromisoa hartzea. Zabarkeria litzateke eskola jazarpena dagoela ukatzea. Errealtatea onartzetik abiatu behar gara.

♦ **Gurasoek ere jaso dute formazio-saioa Elgoibar Ikastolan. Zenbatetan entzun ote dugun 'denok berdinak gara' mezua. Ez ote gabilza oker? Zer desikasi behar dugu gurasoek? Zein da gure egitekoa?**

Mezu hori okerra da, bai. Ezberdinak gara, eta aniztasun horrek aberasten gaitu. Hor egiten du indarra Kivak ere. Gurasoekin ere landu dugu hau formazio-saioetan. Guraso guztiek egin behar dute ariketa hemen, eta ez ume erasotzaileak edo jazartuak dituztenek bakarrik. Naturaltasunez hitz egin behar dugu gure seme-alabekin. Ez dugu ezer ezkutatu behar, gure gazteek ez dezaten

pentzatu eskola jazarpena hedabideetara iristen diren kasu bakan horietara mugatzen dela. Ikasleek sentitzen badute ikastetxean ez eze, etxean ere eskola jazarpenaren kontrako mugimendua dagoela, jabetzen badira naturaltasunez hitz egiten dela arazo horren inguruan, errazago barneratuko dute denon egitekoa dela kontra egitea. Enpatia bilatu behar dugu. Erasoa gelatik kanpora gertatzen dira gehienetan, ezkutuan: aldageletan, komunetan. Zergatik? erasotzaileak berak ere badakielako gaizki ari dela. Kontziente da sufriarazi egin diola ikaskideari, baina beharbada ez da kontziente ikaskide horrek etxean ere negar egingo duela, ez duela lorik egingo eta biharamunean beldurrez joango dela ikastetxera. Eta hori *ziberbullyinga* ez denean. Kasu horietan, jazarpenak ez duelako etenik, ezta etxeko babesean ere.

♦ **Zer kalte egin digu erasotzaile eta biktimen perfilak osatzeko dugun joera horrek?**

Handia. Ezin dugu esterotipoetara jo. Ezin duguna esan da biktima beti dela lotsatia, isila, eta aldiz, erasotzailea, beti dela indartsua, handia eta estatus sozial jakin batekoa. Ezaugarri horiek botere harremanean ematen dira. Guk biktima esterotipatzen

badugu, zabaltzen ari garen mezua da biktimak aldatu egin behar duela. Baina ez. Lotsatia izatea ez da txarra. Gauza bat dago argi: eskola jazarpena dago erasotzaileak daudelako. Beraz, erasotzailearen kontrako jarrera agertu behar dugu, klima aldatzeko. Izan ere, erasotzaileak indarra baldin badu, geuk ematen diogulako da.

♦ **Salatari edo txibato figura bera ere hain egon da beti gaizki ikusia...**

Bai, eta izugarritzko kaltea egin digu horrek. *Txibatoa* beti egon da gaizki ikusia, baina Kivak esaten diguna zera da: eskola jazarpen kasuak salatzea oso positiboa dela, gertatzen ari denaz oharaztea injustizia salatzea delako eta hori oso aintzat hartzeko balorea delako edo izan beharko lukeelako behintzat.

♦ **Injustizien kontra helduok nola erantzuten dugun ikusita...**

Bai, hori ere hala da. Baina bai, *txibato* figura hori ere lantzen dugu prebentzio saioetan, eta ikasleei beti esaten diegu eraso salatzen duen hori oso modu eraginkorrean ari dela lanean egoera injustu hori amaitzeko. Beldurra izatea logikoa da, eta gutxi izango dira erasotzaileari kargu hartuko diotenak, baina besterik ezean, heldu bati –konfiantzazko figura bati– jakinarazi beharko lioke ikusi duena. Hori egitea ere bada jarrera aktiboa izatea. Eta ikasleek ari naiz, baina gurasoei ere esan diegu.

♦ **Formazio saioak egin dituzue, eta prebentzio tailerrekin hasiak zarete. Zer beste egitea aurreikusten duzue?**

Posterrak jarriko ditugu hormetan, ikasleek barnera dezaten eskola jazarpenaren kontra gaudela. Era berean, zaintzakoak eta txaleko batekin ibiliko dira jolastokian, jantokian eta abarretan, zerbait gertatzen ari zaion ikasle horrek bistara izan ditzan beti erreferenteak, laguntza eskatu beharra balu ere. Finlandian neuk ikusi nuen horrek funtzionatzen duela.

“Injustizia salatzea da gertatzen ari denaz ohartaraztea; aintzat hartzeko balorea da”

T xikibarren

Non bukatzen da itsasoa?



Jare Agea
(Mendaro, 6 urte)

Nik ez dakit, sekula ez dut ikusi-eta non bukatzen den, baina oso urruti izango dela uste dut, itsasoa oso handia delako. Galdetuko diot amari-edo.

Lara Lopez
(Mendaro, 6 urte)

Debara joaten naiz ni hondartzara askotan, eta marra bat ikusten da han urruti. Marra bat, eta gero, zerva gainean, baina ez dut uste hor bukatzen denik. Munduaren beste alderaino iristen da ura, itsaso asko daudelako.



Haizea Urkia
(Mendaro, 6 urte)

Ibaian? Ez dakit. Ni Debara joaten naiz hondartzara, baina ez da han bukatzen itsasoa. Ez dut sekula ikusi non bukatzen den, eta ez dakit non bukatzen den, baina uste dut itsasoa bat dela eta urrutira iristen dela. Igual ez dut zure galdera oso ondo ulertu; egin beste galdera bat eta baldin badakit, erantzungo dizut.

Nora Agirrezabala
(Mendaro, 7 urte)

Itsasoa oso-oso handia da e! Debara hondartzara zoazenean han urruti ikusten da ba marra bat? urruti-urruti, oso urruti. Ba han bukatzen da itsasoa, Donostian edo. Infinito ur dago itsasoan, edo gehiago.



Haizea Irasuegi
(Mendaro, 6 urte)

Ez dakit eta asmatu egingo dut erantzuna. Zarautzera joaten naiz askotan hondartzara eta nik uste dut itsasoa oso handia izango dela, uste dudalako munduaren beste puntan ere badutela, baina ez dakit.



Iker Eguren
(Mendaro, 6 urte)

Ez da bukatzen. Hondartza non bukatzen den badakit: batzuetan pixkat gorago eta besteetan pixkat beherago, baina behintzat ikusten da, baina ura... Errekatik behera joaten da ura gure itsasoraino, eta gero auskalo! Itsaso asko daude munduan, baina hori bai, lurra baino handiago da itsasoa.



Danel Txurruka (biloba)



Itziar Salegi (amama)

Kalea. Kalean dena dago, eta dena gertu.

**Bizitzeko toki bat:
baserria ala kalea?**

Bizitzeko leku lasaiagoa da baserria, baina egonean egoteko astirik ez da izaten han! Bizi, kalean hobeto.

Lasai jolasteko leku asko daukagula. Baina, onena-onena, frontoia.

Zer da Mendarok daukan gauzarik onena?

Udaletxea. Asko kostatakoa izan zen, eta lortu dugun gauza handiena izango zen.

Futbolean eta pilotan jokatzea.

Zein da zure jolasik gustukoena?

Astia behar da jolasteko ere. Sokasalttoa eta kartetan jokatzea. Aponetan ere ibili zaleak ginen umetan.

Ba gehien gustatzen zaidana: etxean debekatuta daukat baloiarekin ibiltzea

Zer da zuen etxean sekula egin ezingo zenukeena?

'Formal ibili. Berba zatarrrik ez esan eta ez alferrik enegatu'. Horretxek izan dira gure etxeko mugak.

Gatiburen 'Euritan dantzan'

Zein da zure kanturik gustukoena?

'Aitorren hizkuntz zaharra'. Kantu dotoreak asko daude, baina bat esatekotan, horixe.

Bai, nire ama eta aita.

**Miresten duzu norbait?
Zein?**

Zuek guraso gazteok. Ardura handia izan da beti umeak haztea. Umeak hezi, lan egin...

Gurasoek.

Zeinek merezi du soldata on bat?

Medikuek. Biziak salbatzen dituztenek merezi dute, bai, beste askok baino soldata handiagoa

11 urte. Nik orain daukadana.

Zein da adinik onena?

Segun zertarako. Gaztetan presaka bizi behar izaten da, eta orain hobeto gaude, baina gaztetasuna falta!





▶ IÑAKI KORTABITARTE

STOP DESAHUCIOS TALDEKOA

Zoru klausulen gaineko hitzaldi informatiboa eskaini zuen atzo Eibarren Stop Desahucios elkarteak, eta gai hori ekarri dugu bi orrialde hauetara. Iñaki Kortabitarte Stop Desahucios elkarteko kide elgoibartarrak idatziz erantzun die BARRENEK egindako galderei.

- AINARA ARGOITIA -

“Gobernuak bankuei eman die bezeroari zenbat zor dioten erabakitzeako aukera”

♦ Zer dira zoru klausulak? Nola jakin dezakegu badaukagun ala ez?

Hipoteka gehienak Euribor izeneko interes mota batera erreferentziatuak daude Espainian. European kalkulatu den interes mota bat da Euriborra, eta al dakorra, urtero errebisatzen dena. Interes mota horri hipoteka bakoitzean diferentzial ezberdin bat jartzen diote; adibidez: Euribor gehi puntu bat. Zoru klausulak dira interes horri banketxeek zenbait hipotekatan jarri dizkieten mugak. Hau da, aurreikuspen bat egin izan dute, eta horren arabera Euriborrari goitik eta behetik topeak jarri dizkiote (hipoteka bakoitzean ezberdinak). Hala, Euriborrak tope horietatik gora edo behera egingo balu banketxeak ez luke topetik kanpo dagoena kobratuko. Hori da eskaini izan duten tratu. Beti beraien alde, noski. Eta hor dago gakoa.

♦ **2013an, Espainiako Auzitegi Gorenak legez kanpokoak zirela ebatzi zuen, gardentasunez azaldu ez ziren kasuetan. Notarioak kontratua irakurtzeak ez zuela gardentasuna bermatzen**

gehitu zuen gainera; notarioak bezeroak ohartarazteko betebeharra zuela alegia. Entitate batzuek ezabatu zituzten, baina esistitzen al dira oraindik? Euskal Herrian, zeintzuk izan dituzte? Zer entitatek erabili ditu gehien?

Jakina esistitzen direla. 2013ko ebazpenak ez zituen zoru klausulak hipotekatik kentzeko esan, abusuzkoak zirela baizik. Alegia, gehiegikeria bankuak klausula horiei buruz bezeroari eman dioten informazioan dago; ia gardentasunez azaldu zien ala ez da kontua, eta hori bankuak frogatu behar du. Hor dago gakoa. Banketxeen ranking bat egitea baino garrantzitsuagoa da hau: adi egoitea banku bakoitza gai honi ematen ari zaion erantzunari, erantzunak ezberdinak direlako, estrategia komertzial eta judizial ezberdinak dituztelako.

♦ **Zenbat kaltetu egon dira Hego Euskal Herrian? Elgoibar eta Mendaroko datu-rik badago?**

Stop Desahucios elkarteak ez daukagu Elgoibar eta Mendaroko datu-rik. Prentsa ekonomikoan esaten da Espainian

3.500.000 pertsona direla kaltetuak eta Euskal Herrian 160.000 inguru. Kontuan hartu behar da oso ohikoa izan dela klausula hau. Noski badaudela gure artean kaltetuak! Berriki zoru klausulen Eibarko kaltetu bati lagundu diogu, eta azkenean, banketxeak 10.000 euro itzuli dizkio. Uste dut bizi dugun egoeraren argigarri dela.

♦ **Maileguak emateko orduan ezinbesteko baldintza gisa sartu ohi zituzten banketxeek zoru klausulak eta horregatik bankuek herritarren kontra hasitako iruzur handiena dela salatu izan duzue. Nola baloratzen duzue orain artekoa?**

Zoru klausulak hipoteka batek dituen klausulen arteko bat dira; badaude gehiago, eta denak dira garrantzitsuak. Onartu duten errege dekretuaren eraginez, klausula honek 4.000 milioi euroren diru-itzultzea suposatuko du (2013 aurretik hipotekatuak abonatu dituztenak). Diru kopuru handia da hori, baina handiagoa da hipoteka guztiak suposatzen duten diru kopurua, eta hipoteka guztiak daude gehiegizko klausulez josiak. Ondorioz, Stop

Desahuciosen borroka bankuen gehiegikerien aurkakoa da; gehiegikeria horiei freno jarritz, etxe kaleratzeak amaitu nahi ditugu. Horrek esan nahi du borrokaurrera jarraitzen duela eta luze joko duela gainera.

♦ **2013ko epai hartan Gorenak argitu zuen bankuek ez zutela dirurik itzuli behar, ez zegoela atzera eraginkortasunik, baina Europako Batasuneko Justizia Auzitegiak kontrakoa esan du: zoru klausulek eragindako gainkostu hori hipoteka sinatu zen egunetik gaur arte itzuli behar dela. Beraz, bankuek itzultzeko obligazioa dute, baina ez du ematen hain erreza izango denik. Zer bide jarraitu behar dute kaltetuek?**

Gomendatzen duguna da banketxeari diru hori erreklamatzeko, baina erreklamatzeko ez du esan nahi erreklamazio judiziala aurkeztu behar denik. Gomendioa da mugitzea; ez egotea bankuek zer egingo duten zain.

♦ **Zer dokumentazio behar da erreklamazioa hasteko?**

Ekrituren eta bankuaren erreziboen kopiak aurkeztu behar dira.

♦ **Behar baino gehiago ordaindutakoa bakarrik erreklamatu daiteke, ala badago horren interesak erreklamaterik?**

Bai, erreklamatu daitezke interesak ere. Horretarako, lehenik eta behin erreklamazioen bidea hasi behar da, eta ondoren ikusiko da zein norabide hartuko duen: epaitegirako bidea ala negoziatorakoa.

♦ **Borroka hori bakarrik egin daiteke ala komeni da kaltetuak elkartzea, eta taldean ekitea erreklamazio bide horri?**

Kaltetuak elkartzea komenigarria da. Horregatik ireki da erreklamazioen bide hau, borroka kolektibo baten emaitza delako. Nahiz eta erreklamazio bakoitza banakakoa izan, taldean ekiten denean horrek indar handiagoa ematen dio kaltetuari banketxearekin negoziatzeko orduan.

♦ **Zoru klausulen auzia auzitegietatik ateratzeko plana adostu berri du Madril, PSOE eta PPren babesarekin. Plan horretan diote bankuek eurek jakina-**

razi beharko dietela zoru klausulak dituztenei zenbat diru gehiago ordaindu duten zoru klausula izateagatik. Bankuek erabakiko dute beraz nork eta zenbat kobratuko duen. Eta bezeroa ez badago konforme esaten diotenarekin?

Bezeroa ados ez badago, lehenik eta behin judiziala ez den erreklamazio bat jarri behar du. Bankuak erantzun ezean edo erantzuna ezezkoa bada, orduan jo behar da epaitegira.

“Bankuen gehiegikeriei freno jarritz etxe kaleratzeak amaitu nahi ditugu”

♦ **Auzi honen harira “oportunistekin” tentuz ibiltzeko aholkatu duzue. Zeintzuk arrisku ikusten dituzue ba?**

Arriskua ondorengoa da: abokatu bulegoentzat hau pagotxa da, erreklamazio judizial askoren bidea irekitzen delako. Gure esperientziak dio gai honetan adituak diren abokatuak gutxi direla, eta abokatu ezberdinen erreferentziak izan ditugu (Udalek kaltetuei eskaini dizkietenak, ofiziozkoak, bulego pribatu anitzetakoak...). Beraz, plataforman beti esaten dugun bezala, garrantzitsua da erreklamazio judizialen bidea hartu aurretik ondo pentsatzea eta erreklamazioaren bidea hartutakoan ere pauso bakoitza ondo aztertzea eta abokatuari jarraipena egitea. Hain zuzen ere, hori egiten dugu guk plataforman: gure abokatuaren bidez auziak aurrera eramanez eta auziari buruzko gogoeta egiteko aukera eman taldean, baina hori bai, lehenengo eta azkenengo hitza beti kaltetuak izaten du.

♦ **Zer balorazio egiten duzue gure ordezkari politikoekin jardunaz?**

Zoru klausulen erreklamazio bidea Kongresuan onartu da errege dekretuz. PP eta Ciudadanos bozkatu dute alde, EAJ eta PSOE abstenitu egin dira, eta EH Bildu eta Unidos Podemos kontra bozkatu dute. Hori euskal autonomia erkidegoko alderdiei erreparatzen badiegu. Kontuan

hartu behar da Gobernuak berriz ere, eta oraingoan ere dekretuz, banketxeen mesedetan egin duela legea. Izan ere, lege horren bidez bankuek bezeroei zor dieten guztia itzultzea bermatu beharrean, Espainiako Gobernuak egin duena da bankuei eman erabaki-ahalmena. Hau da, bankuei eman die bezeroari zenbat zor dieten erabakitzeko aukera, eta horren araberrako eskaintza egiteko bidea. Beraz, hori ahalbidetu duten guztiek babestu dute lapurreta hori. Uste dut erretratua garbia dela. Norberak atera ditzala bere ondorioak.

♦ **Bankuek diru guzti hori bat-batean itzuli behar izateak zer ondorio izan ditzake? Nola eragingo dio banku-sistemari?**

Gure kezka ez da nola eragingo dion honek banku-sistemari, baizik eta nola eragingo digun herritarroei. Bankuek ondo baino hobeto zekiten zer egiten ari ziren, zeintzuk ziren gehiegikeriak; beraiek “praktika txarrak” deitzen diote horri. Herritarrik gabe ez dago banku sistemarik. Badirudi hori ahaztu egiten dela. Epaitegiak zera frogatzen ari dira: gehiegikeriak ez direla bakarrik izugarrizko bidegabekeria, baizik eta negozio txar bat. Ondorioz, nik esandako argudioekin galdera bankuren bati egin beharko zenioke.

♦ **Hipoteka formalizatzeko gastuak (notaritzako gastuak eta abar) oso-osoan bezeroari ordainarazi dizkiete kasu batzuetan eta hori ez dela zilegi ebatzi dute berriki. Kasu guztiei eragiten die? Zeintzuk gastu erreklamatu ditzakegu?**

Auzitegi Gorenaren epai bat izan da. Epai horrek hipoteka maileguan sortutako gastuak itzultzeko eskatzeko bidea ireki du. Beti bezala hipoteka irakurri behar da ikusteko ordaindu beharra zeneukan ala ez. Dena den, klausula hau hipoteka ia denetan ageri da. Notaritzako gastuez, erregistroko ez eta zegozkion zergez ari dira. Hemen ere epaitegira jo aurretik erreklamazio bat egin behar da. Stop Desahucios Debabarrenekin harremanetan jartzeko gomendatzen dugu guk. Ostegunero Eibarren batzen gara, 19:00etan. Harremanetarako: 627 934 675.

► Ozen entzun ziren Santa Agedaren omenezko koplak Elgoibarren eta Mendaron



Santa Agedaren omenezko koplak eta bertsoak goizean goizetik hasi ziren entzuten Mendaron eta Elgoibarren, Santa Ageda bezpera egunean.

Etxegiña taldekoek Elgoibarko kale eta auzoak koplatu zituzten. Aurten, baina, ez ziren bi taldetan banatuta irten, koplari nagusietako batek eztarria gaizki zeukalako. Horrenbestez, denak elkarrekin ibili ziren koplak kantuan.

Elgoibarko Izarrako lagunak, berriz, bi taldetan banatuta jardun zuten kantuan eta eskean. Idorbe aldera joan zen taldeak ezustekoa izan zuen Aubixa parera iristean, izan ere, haizeak botatako pinu batek errepidea moztu zuen. Eguneko lehen baserrira bidean zihozten, Idorbe Armaxio baserrira, eta ez atzera ez aurrera gelditu ziren. Urkiola baserriatik motozerra ekarri zuten, eta berehala libratu zuten bidea.

Mendaron ere ilusioz jardun zuten koplak kantuan. Hiru taldetan banatuta pasatu zituzten herriko kaleak eta baserriak. Argazki gehiago ikusteko: www.barren.eus.



Elgobarko Izarrako taldea



Elgobarko Izarrako taldea



Etxegiña taldea



Mendaroko santa eskea



Etxegiña taldea



Mendaroko santa eskea

Casa Astigarragak etxean jokatu du Euskal Ligan sartzeko sektorea



Euskal Ligako bigarren fasea jokatzeko sailkapen partidak jokatu dituzte asteburuan kadete nesken mailako zortzi eskubaloitalde; lauk, Zumaian eta, beste lauk, Elgoibarren. Casa Astigarraga GYS Sport taldeak etxean, Olaizaga kiroldegian, jokatu du Bilboko San Adrian, Egia eta Bera Bera taldeen aurka. Bi talde onenek lortuko dute sailkapena. Astigarragak gaur (otsailak 10) jokatu du lehen partida, Bera Bera taldearen aurka, 19:00etan. Zapatuan, San Adrianen aurka jokatu dute 17:30ean, eta domekan, Egia- ren aurka, 11:30ean.

Pilota Eguna antolatuta dute biharko

Elgoibar Ikastolak XX. Pilota Eguna antolatu du zaturako (otsailak 11). Eguraldi ona izanez gero, Kalegoen Plazako frontoian egingo dute. Aldiz, eguraldi txarra egingo balu, Ikastolako Frontoian izango da. Ekintza hau soilik Ikastolako haurrentzat izango da, eta bertan, 6 eta 12 urte bitarteko haurrek parte hartuko dute.



Mugertza krosari buruzko argazki lehiaketa

Mugertza krosari buruzko argazki lehiaketa antolatu du Mintxeta Atletismo Taldeak, Tantaka tabernaren laguntzarekin. Otsailaren 17ra arte entregatu ahal izango dira argazkiak. 14 urtetik gorako edonork parte har dezake. Argazkiak ondorengo helbidean entregatu behar dira: Mintxeta Atletismo Taldea, 120 Posta kutxatila. 20870 Elgoibar. Argazki guztiak Tantaka tabernan jarriko dituzte ikusgai.

Emaitzak

FUTBOLA

Touring 0 – Haundi 1 (Oho. erreg.)
Antigua Luberri 0 – Elgoibar 1 (1. erreg.)
Trintxerpe 3 – Elgoibar 2 (Oho. jub.)
Elgoibar 3 – Mondragon 3 (Jub. 1. maila)
Elgoibar 2 – Ilintxa 2 (Oho. kad.)
Elgoibar 2 – Urki 1 (Inf. 1. maila)
Anaitasuna 1 – Elgoibar 0 (Infantil Txiki)
Zarautz 7 – Elgoibar 0 (Aleb. lagunart.)
Zarautz 7 – Elgoibar 0 (Aleb. lagunart.)

ARETO FUTBOLA

San Juan 3 – Concepto Egile 5 (Nazional B)

SASKIBALOA

Astigarraga 38 – Viento Sur 60

ESKUBALOA

Alcorta F.G. 29 – Romo 27 (Senior. giz.)
Aloña 23 – Lauko 26 (Senior emak.)
Salento 31 – Egia 22 (Sen. giz.)
Aloña A 36 – Dario Elg. 25 (Kad. nes.)
Legazpi 23 – Bankoa 28 (Kad mut.)
Pulpo 27 – Modeltek 9 (Inf. nes.)
Bera Bera 35 – Bacalaos Alcorta 14 (Inf. nes.)
Pneumax 12 – Aiala D 14 (Inf. nes.)
Usurbil 32 – Murgil Elg. 21 (Inf. mut.)
H. Txarriduna 24 – Usurbil B 34 (Inf. mut.)

Agenda

ARETO FUTBOLA (IMH Kiroldegian)

Domeka, 12
12:30 Concepto Egile – Santurtzi (Naz. B)

FUTBOLA (Mintxetan)

Zapatua, 11
11:00 Elgoibar – Zarautz (Inf. 1. maila)
16:30 Haundi – Oartzun (Oho. erreg.)
18:30 Elgoibar – Ilintxa (Oho. jub.)
Domeka, 12
11:00 Elgoibar – Real Union (Inf. txiki)
16:00 Elgoibar – Axular (1. erreg.)

ESKUBALOA (Olaizaga Kiroldegian)

Barixakua, 10
17:30 Egia – San Adrian (Kad. nes. Euskal Liga)
19:00 C. Astigarraga – Bera Bera (Kd.nk. E.Liga)
Zapatua, 11
10:00 Modeltek – Leizaran (Inf. nes.)
11:15 Bacalaos Alcorta – Orioko (Inf. nes.)
12:30 Bankoa – Egia (Jub.nesk.)
17:30 San Adrian – C. Astigarraga (Kd.nk. E.Liga)
19:00 Egia – Bera Bera (Kd.nk. E.Liga)
Domeka, 12
10:00 Bera Bera – San Adrian (Kd.nk. E.Liga)
11:30 C. Astigarraga – Egia (Kd.nk. E.Liga)
13:00 Lauko Elg. – Urdaibai (Senior emak.)

ESKUBALOA (IMH Kiroldegian)

Barixakua, 10
18:30 Deca – Pulpo (Jub. mut.)
Zapatua, 11
10:00 Murgil – Tolosa (Inf. mut.)
16:00 Tecnifuelle – Bera Bera (Jub. nes.)

C.D. Elgoibarren martxa estreinatuko du Udal Musika Bandak domekan

Elgoibarko Udal Musika Bandak kontzertua eskainiko du domekan Herriko Antzokian, 12:30etik aurrera. Bost pieza eskainiko dituzte, eta horietako bat C.D. Elgoibarren mendeurrenari eskainitako martxa izango da. German Meabebasterretxeak idatzi du abestiaren letra eta Txomin Mujikak egokitu du musika bandarentzat. Elgoibarko Kale Kantariak eta Parrokiako Abesbatzak ere hartuko dute parte abesti honetan. C.D. Elgoibarrrek ekitaldi hori baliatuko du mendeurreneko lantaldeko kide zen Rikardo Garateri omenaldia egiteko.

Hemen duzue German Meabebasterretxeak idatzitako kanta:

*Kondairak dioenez, aurten ehungarrena.
Azkubeta ta Lerun, Mintxeta hurrena
herriak eman zion Elgoibar izena,
historian hain harro soinean duena.
Zuri-gorria denez bere kolorea,
herriak sentitzen du "Haundia" berea.
Zu zara gure ikur, gure ohorea
zure elastikoa zure eskudoa.
Zure konpromisoa ta gure gogoa,
zaleak ekipoa eskutik daroa.
Historia sendoa, bihar oparoa,
bihar oparoa*

Ingeles eta alemaniera mintzapraktikak eskainiko dituzte liburutegian

Gotzon Garate Udal Liburutegian udazkenean antolatutako ingeleseko mintzapraktika taldearen arrakasta ikusita, bigarren talde bat sortuko dutela jakinarazten dute, oraingoan, erdi mailakoa. Saiok barixakuetan, 18:00etatik 20:00etara izango dira eta dinamizatzaile batek eramango ditu. Jarduera honen helburua ingelesa giro lasai batean erabiltzea da. Era berean, Alemaneko mintzapraktikako taldea ere abian jarriko dutela jakinarazi dute liburutegiko arduradunek. Talde hori ere dinamizatzaile batek gidatuko du. Interesatuak liburutegian eman behar dute izena.

Gianni Chiriattiren argazki erakusketa Salento tabernan

Gianni Chiriatti artista italiarraren lanak ikusgai daude Salento tabernan atzotik. Ezagutzen ez diren gauzei buruzko lanak dira. Datorren ostegunera arte, hilak 16, egongo dira koadroak ikusgai.

Mintzanet: euskara online eta doan praktikatzen

Euskara on-line eta doan praktikatzen aukera ematen duen proiektua da Mintzanet. Bertan, bidelagunak (euskaraz dakitenak, ez dira irakasleak), eta bidelariak (euskara praktikatu nahi dutenak, gutxienez A2-B1 maila dutenak) elkartzen dira saiok Internet bidez egin ditzaten. Norberak aukeratu du ordua edo zer gairi buruz berba egin. Mugikorra, tableta edo ordenagailua eta Internetera konexioa behar dira. Informazio gehiago aurkituko duzue www.mintzanet.net webgunean.

'Jainko basatia' antzerkia eskainiko dute gaur, Elgoibarko Herriko Antzokian



Txalo Produzioak taldeak *Jainko basatia* antzezlanaren taularatuko du gaur iluntzean Herriko Antzokian. Komedia dramatikoak da. Bi bikote ezkondu elkartuko dira euren seme-alaben arteko liskarrak konpontzeko asmoz, izan ere, bikote baten semeak besteari eraso egin dio. Egoera horretan sortzen diren gatazkak izango dira obraren ardatz. Andoni Agirregomezkorta, Tessa Andonegi, Aitziber Garmendia, Mikel Losada dira antzezlan honetako aktoreak. 20:30ean izango da emanaldia. Sarrerak Herriko Antzokiko lehiatilan erosteko aukera egongo da.

Jendaurrean eraginkortasunez hitz egiteko ikastaroa antolatu du Debegesak

Debegesak bi ikastaro eskainiko ditu otsailen, bata euskaraz eta bestea gaztelaniaz, jendaurrean eraginkortasunez hitz egiten ikasteko. Ikastaroak komunikazio-gaitasuna hobetu eta landu nahi duten profesionalen zuzenduta daude. Euskarazko ikastaroa otsailaren 21ean eta 28an egingo da, eta gaztelaniaz, berriz, otsailaren 10ean eta 17an. Bi ikastaroak Manu Marañon formatzaile eta coachak emango ditu, Debegesak Eibarren daukan egoitzan. Prezioa 140 eurokoa da. Informazio gehiago 943 820 110 telefonoan.

Pirritx eta Porrotxen saioak batu zituen ikusle gehien 2016an Herriko Antzokian

Udaleko Kultura Sailak ikuskizun eszenikoek 2016an batu zituzten ikusleen kopuruak jakinarazi ditu, eta datu horien arabera, Pirritx eta Porrotxen emanaldia izan da 2016an arrakastatsuen. Bi saio eskaini zituzten, eta guztira, 746 lagun batu ziren Herriko Antzokian. *El Florido Pensil* (neskak) izan da bigarren gustukoena 292 ikusleekin, *La Taberna del puerto* 246 ikusleekin, eta *Kreditua* antzerkia, 200ekin. Ikusle gutxien, bestalde, *Mobidick* antzerkiak izan zituen: 23. 2016an 2.247 lagun joan ziren Herriko Antzokira ikuskizun eszenikoak ikustera.



'Turandot' opera eskainiko dute gaur zortzi Herriko Antzokian, formato diferituan

Kultura Sailak aurrez grabaturiko operak, balletak, errezitaldiak eta ikuskizun handiak zine pantaila handian eskaintzearen aldeko apustua egin du, eta *Turandot* opera izango da formato diferituan eskainiko duen lehen ikuskizuna. Pucciniaren lan klasikoa da. Adituen arabera, inoiz idatzi den operarik onenetariko da. Melodia disdiratsuak ditu, istorio liluragarria, akzioa, drama... Eta horrez gain, Riccardo Massik abesten duen *Nessun Dorma* kantaren bertsioa.

Datorren barixakuan eskainiko dute obra hau, hilaren 17an, Herriko Antzokian. 20:30ean hasiko da ikuskizuna. Sarrerak Kutxabank bidez eros daitezke, edo lehiatilan, bihar, 19:15etik 21:45 bitartean. Sarrerak aurrez agortzen ez badira, egunean bertan ere egongo da lehiatilan erosteko aukera.

Inazio Bereziartua musika eskolako ikasleek Andoaingo piano jaialdian hartu dute parte

Inazio Bereziartua musika eskolako 16 ikasleek Andoaingo piano jaialdian hartu zuten parte joan zen asteburuan. Guztira urrezko zortzi domina, zilarrezko zazpi eta brontzezko bat eskuratu zituzten. Musika eskolako arduradunek emandako datuen arabera, arrakasta handia dauka pianoak Elgoibarren, izan ere, musika eskolan dabilten 550 ikasletatik 108 dira piano ikasleak.



LANA.....
Eskaerak

Adinekoak edo umeak zaintzeko prest nago. Garbiketa lanak ere egingo nituzke. Orduka.
☎ 602 047 812

Adinekoak zainduko nituzke. Geriatria laguntzailea naiz. Ordelegi malgutasun handia. ☎ 646 931 162

Garraioetan lan egiteko prest nago. Gi-dabaimena daukat.
☎ 684 093 993

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago.
☎ 684 318 696

Adinekoak zainduko nituzke.
☎ 635 005 536

Adinekoak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko prest nago.
☎ 631 343 232

Etxeko lanak egin eta adinekoak zaintzeko prest nago. Euskalduna naiz.
☎ 626 435 491

Adinekoak zaintzeko edo sukaldari laguntzaile lanetan aritzeko prest nago.
☎ 636 882 838

Adinekoak zaintzeko prest nago. Interna ere bai.
☎ 649 044 223

Adinekoak nahiz umeak zaintzen edota etxeak, lokalak edo beste edozein gune garbitzen egingo nuke lan. Orduka nahiz lanaldi osoz.
☎ 631 679 091

Adinekoak zaindu edo sukaldari lanak egiteko prest nago. Ordelegi malgua.
☎ 657 773 138 (Julia)

Adinekoak eta umeak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest nago.
☎ 688 861 654

Adinekoak eta umeak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest nago.
☎ 631 271 595

Adinekoak eta umeak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest nago.
☎ 664 225 040

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago.
☎ 653 156 403

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago.
☎ 612 218 594

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago.
☎ 632 737 903

Adinekoak eta umeak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest nago. Esperientzia handia eta erreferentziak ditut. ☎ 631 785 554

Adinekoak edo umeak zainduko nituzke. Interna egoteko prest.
☎ 604 164 719

Etxeak eta portalak garbituko nituzke. El-goibartarra eta euskalduna naiz.
☎ 649 782 967

Nagusiak edota umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko prest nago. Orduka lan egiteko prest. Esperientzia eta gidabaimenarekin.
☎ 616 348 918

Adinekoak zaintzeko prest nago. Orduka ere bai. Esperientzia handia eta formakuntza ditut.
☎ 602 161 496

Etxeko lanak egiteko edo adinekoak nahiz umeak zaintzeko prest nago. Sukalde laguntzaile gisa ere lan egingo nuke.
☎ 602 047 812

Pertsona nagusiak zaintzeko prest nago. Orduka ere bai.
☎ 600 319 516

Asteburuetan adinekoak zaintzeko prest nago. ☎ 651 156 456

GARAJEAK.....

Garaje handi eta itxia alokatzen da Urazandin. Ate automatikoa dauka, eta kallean bertan dago.
☎ 661 151 803

Garaje marraduna salgai San Roken (Pista Beltzaren azpian).
☎ 670 654 820

ETXEBIZITZAK.....**Alokairua**

Pisua edo logela bat hartuko nuke alokairuan.
☎ 684 093 993

Pisua hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. ☎ 622 162 798

Bi edo hiru logelako etxea hartuko nuke alokairuan. ☎ 688 723 121

BESTELAKOAK.....

Zubi Ondo elkarteko bazkidetza kuota saltzen dut.
☎ 628 253 046



P. M. Urruzuno kalea, 6 behe - Elgoibar
☎ 943 743 140 - rosapf@telefonica.net



Hogeita hamar urteren ostean, garajeetako lurra margotu eta plazak margoz bereiztea erabaki dugu gure komunitatean. Zenbaitetan planoetan jasotakoa ez dator bat errealitatearekin, eta gainera, batzuetan ez dute zerikusirik koefizienteekin. Berez, plazen %90ek koefiziente bera dute, eta beste %10ek zertxobait handiagoa edo txikiagoa. Plazak bereizita daude berez, baina gehienetan markak ez dira ondo bereizten, eta gainera, ez dago jakitzerik marka originalak diren edo gerora egin direnak. Jakin nahiko nuke berririo markatzeko orduan zeren arabera egin beharko genukeen edo irizpide jakin bat adostu beharko genukeen.

Nire iritziz, zuzenena planoetan jasotakoari erreparatzea da, planoak dauden kasuetan, eta bestela, Eratze Tituloan edota Estatutuaren jasotakoari erreparatu beharko genioke. Arrazoizkoena irizpide uniforme baten arabera markatzea da, plazak zehaztutako azaleraren arabera markatzea alegia, bestela proportzionalitate printzipioa urratuko litzatekeelako bizilagun batzuen mesederako.

Legeak dio komunitatearen kargen eta onuren parte-hartzea zehazteko modulotzat balio dutela kuotek. Baina legeak ez du babesten eskubideak gehiegikeriaz baliatzea. Beraz, bere ekintzetan edo egiteko moduan eskubideak gehiegikeriaz erabili eta hirugarren lagun bati kalte egiten dion horri kalte-ordaina eskatzea dago eta baita bere kontra behar diren neurri judizial eta administratiboak hartzea ere, egoera zuzentzeko.

AHOLKUA: Erreklamatzekotan epaiketan erreklamatu beharko du jabeak dagokiona eta han argudiatu beharko du bere balizko eskubide hori, komunitatearen aurrean defendatu nahi badu behintzat.

ROSA Mª PINTADO: Etxaldean Administraziorako-Gradu ikasketen arduraduna Alcalá de Henaresko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749



Argazkiak eguzten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARRENeke bulegora, edo barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara bidali.



Zorionak, **Ane**, asteartean 9 urte bete zenituelako. Mila kilo muxu maite zaitugun denon partez.



Zorionak, **Gari**, jarraitu beti bezain jator. Etxeko-koon partez.



Zorionak, **Udane**, astelehenean 10 urte egin zenituelako. Muxuak etxekoen, eta bereziki, Arianneren partez.



Zorionak, **Erik**, bihar zure urtebetetze eguna delako. Muxu handi bat etxekoen partez.



Zorionak, **Olatz**, otsailaren 8an 8 urte egin zenituelako. Muxuak familiako guztien, eta bereziki, Izarren partez.



Zorionak, **Leire**, otsailaren 7an zure eguna izan zelako. Bost belarri tirakada handi denon partez. Segi horrelaxe urte askoan!



Zorionak, **Arai**, gaur 5 urte egin dituzulako. Muxu potolo bat aitaxo, amatxo eta familiako guztien partez.



Zorionak, **Jare**, asteazkenean 5 urte egin zenituelako. Muxu bat etxekoen eta, bereziki, neba Aratz, eta lehengusu Ibai eta Lierren partez.




Zorionak, **mosketero!** 8 urte dagoeneko! Muxu mordoa etxeko guztien partez.



Zorionak, **Roke**, domekan 4 urte egingo dituzulako. Zelako nagusi! Muxuak familiakoen, bereziki Nora eta Markelen partez.



Zorionak, **Narrea**, otsailaren 9an 10 urte egin dituzulako. Familiakoen partez, muxu handi bat.



Zorionak, **Julen eta Aimar**, gure morroskoak, urtarrilaren 19an 7 urte eta otsailaren 7an 3 urte egin dituzulako. Muxu asko familiakoen partez.

ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK

Erretratu bakarreko agurra: 4,50€.
Argazki bikoitza: 7€.
Hirukoitza: 9€.
Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€.

Erretratu bakarreko agurra: 3,50€.
Argazki bikoitza: 6€.
Hirukoitza: 8€.
Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€.

Uzuri ELGOIBAR - DEBA
optika audio

San Frantzisko, 21 - Elgoibar
Tel.: 943 740 359 www.uzurioptika.com







19€

[bi lentilla probak barne]





Ināuterietarako fantasiazko eta koloretako lentillak

10 BARIXAKUA

18:30 Odol ateratzeak. Odol emaitzek osasun zentro aldamenean duten lekuan.

20:30 Antzerkia: 'Jainko basatia'. Txalo produkzioak taldeak taularatuko du Herriko Antzokian.

11 ZAPATUA

10:30 Pilota Eguna. Elgoibar Ikastolak antolatuta, Kalegoen plazan. (Euria egiten badu, ikastolako frontoian).

12 DOMEKA

12:30 Kontzertua. Udal Musika Bandak kontzertua eskainiko du Herriko Antzokian. C.D. Elgoibarren aldeko martxa estreinatuko dute, Elgoibarko Kale Kantarien eta parrokiako abesbatzaren laguntzarekin. Egitaraua:

1. *The millennium song* (K. Vlák)
2. *Music for a solemnity* (J. de Haan)
3. *La marchenera* (F. Moreno Torroba)
4. *Odyssey* (J. Curnow)
5. C.D. Elgoibarren mendeurreneko martxa. (Mujika eta Meabebasterretxea).

14 MARTITZENA

18:00 GeoElgoibar egitasmoa: Geologia herriko kaleetan. Inma Mugertza geologian adituak eskainiko ditu azalpenak. Izena eman behar da: *infohydrolur@gmail.com* helbidean edo 943 901 654 telefonoan.

19:30 Hitzaldia. 'Piztu desmilitarizazioa'. Altsasuko gertakariei buruzko hitzaldia eskainiko dute Ekin Altsasu ekimeneko kideek. Elgoibarko Jaiki taldeak antolatuta, Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

16 EGUENA

18:00 Ogigintza ikastaroa. Txillarre ekodendan, doan.

17 BARIXAKUA

20:30 Opera diferitua: 'Turandot'. Herriko Antzokian.

Botika ordutegiak

09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

Guardiak

09:00 - 22:00

10 Barixakua ORUESAGASTI*

11 Zapatua ETXEBERRIA

12 Domeka ETXEBERRIA

13 Astelehena IBAÑEZ*

14 Martitzena GARITAONANDIA

15 Eguaztena ETXEBERRIA

16 Eguena FERNANDEZ*

17 Barixakua YUDEGO

20:00 - 22:00

* Guardia Elgoibartik kanpora denean, asteburuetan ezik: BARRENETXEA (Elgoibar) Errosario, 26 - Tel.: 943 741 277

22:00 - 09:00

MANDIOLA (Eibar)

San Agustín, 3 - Tel.: 943 820 533

- FERNANDEZ: Herriko enparantza 4, Garagartza (Mendaro) Tel.: 943 756 142

- IBAÑEZ: Rekalde, 1 (Soraluze) Tel.: 943 751 638

- ORUESAGASTI: Kalebarren, 9 (Soraluze) Tel.: 943 751 384



ERRENTAGARRITASUN ZIURTATUA 2016KO BIGARREN SEIHILEKORAKO

ERRENTAGARRITASUN ZIURTATUA SEIHILEKO NATURALEN ARABERA

LIKIDEZIA: HASIERATIK.

Lehen urtean, ateratako zenbatekoaren %2ko penalizazioa aplikatuko da.

IRAUPENA:

mugagabea, bezeroak inbertitutakoa atera, edo hil arte.

FLEXIAHORRO honako konpainia honen BIZI-ASEGURU ETA AURREZKI bat da: CNP Partners de Seguros y Reaseguros, S.A. Grupo CNP Assurances-koa; Standard & Poor's-en, A ratinga du, akzioen %60tik gora enpresa publikoena edo Frantziako Estatuarena izanda. Bankoa bitartekaria da.



10.000 euroko Flexiahorro bat kontratatzen baduzu, honako hau operatuko ditzugu: Tupperware marka ospetsuko 10 ONTZI, janaria gorde eta eramateko: 1 litroko 1 ontzi, 1,5 litroko 1 ontzi, 2 litroko 1 ontzi, 600 ml-ko 3 ontzi eta 300 ml-ko 4 ontzi.

Informazio gehiago: ELGOIBAR.
San Francisco, 1. Tel: 943 74 40 72



'Passengers'

11 zapatua: 19:00 / 22:15
 12 domeka: 19:00
 13 astelehena: 21:30



'ORM,
 elurretako erresuman'

12 domeka: 16:30



'María y las demás'

(Ongarri zinekluba)
 16 eguena: 21:30



Urtarrilean hildakoak

Pedro Jose Ansola Garate

57 urte, urtarrilak 5

Angel Chico Pardo

64 urte, urtarrilak 5

Andresa Ecenarro Atristain

99 urte, urtarrilak 8

Iluminada Tadeo Camino

91 urte, urtarrilak 18

Txomin Iribarren Zubiaurre

79 urte, urtarrilak 19

Nati Alkorta Rementeria

96 urte, urtarrilak 20



Manuela Larrañaga Loyola

2017ko otsailaren 2an hil zen, 90 urte zituela.

**Ama bezela maitagarria
 amama bezela berdin
 sendi guztia babestearren
 ez dezu lan gutxi egin
 nahiz eta orain paradisura
 zoazen aingeruekin
 eman diguzun maitasun dena
 geldituko da gurekin.**

Haren oroimenez domekan, otsailak 12, meza izango da, 12:30ean Aiastiako San Migel elizan. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak.



Julen Ansola

Julen Ansola



Irati Agirreazaldegi



Hezur zikinak egositako eltzetik ez omen da salda garbirik izaten. Iru-diei oraindik ez zaie zapore eta usainik antzematen, hala ere, hezur zein haragi, horrelako tokietan eta moduan salgai jartzen badituzte norbait ausartuko da jaten. Gurean ez dakit begiek eta barrenek atrebentziarik ba ote daukaten.

Elkarrekin nahastuz bat egiten dute saltzailearen arropen koloreak eta haragiak. Herriko harategietan, ordea, nagusi dira lanerako mantal garbiak. Ez bakarrik mantalak, are gehiago haragia babestuz bezeroek ikusteko garden-garden egoten diren kristalak.

Xerrek balantzaren gaineko paperean atsedean hartzen dute bapoa. Plastikoa barnealdean duen papera zertarako? Garbitasunaren izenean edozertarako, baina biltzeko beste modurik ez ote dago haragiarentzako?

Plastikodun paperaren barruan haragia, eta, gainean poltsa; hori ere plastikozkoa, eta horrela kate luze askoa. Zer egingo dute orain haragia lurtean dutenek globalizazioaren poltsak beraie-nean batzen duenean oilaskoa? Agian horrek lotuko du bateko eta besteko bezero eta dendarien arteko irribarrearen arrastoa.

Etengabe gora doa plastikoaren erabilera. Ezin gara inora joan plastikorik gabe, eta bestela plastikoak hartuta edo gutxienez ukituta iritsiko gara etxera. Txoko guztietan dago garbitasunaren izenean erabiltzen den zera, eta egunotan gehiago gainera. Hai-zeak aireratzen ditu batera eta bestera, eta gero nora joango ote da?

Frutak, barazkiak, okela, arraina... garbi jan behar direla badakigu, baina higienearen izenean ez ote gara larregi kutsatzen dugula konturatzeko adina? Ez al genuke gure ingurua garbiago izango erosketetara bestelako poltsekin joaten edo edukiontzia modu zentzuzkoagoan erabiltzen saiatuko bagina?

“Higienearen izenean ez ote gara larregi kutsatzen dugula konturatzeko adina?”

barrena 11, EIBAR

garajesGarcía.com

Marka guztietako
gurpiletan
deskontuak!



www.garajesgarcia.com
g.garcia@garajesgarcia.com

Abokatuak: 943 820 697

Lanlekuak: 943 202 214

943 127 271

5.500 €



CITROEN BERLINGO FURGON 1.9 D 600

Motora: 1.9CM3 D Diesel

Km: 55.000

Egoera: erabilia

7.000 €



CITROEN BERLINGO FURGON 1.6 HDI 75X60

Motora: 1.6 cm HDI Diesel

Km: 42.000

Egoera: erabilia

14.000 €



TOYOTA AVENSIS 2.0 D4D ADVANCE

Motora: 2.0 cm3 D4D Diesel

Km: 106.000

Egoera: erabilia

22.600 €



HONDA CRV ELEGANCE 2.2i DTEC

Motora: 2.2 cm 3i-CTDI Diesel

Km: 106.000

Egoera: erabilia

3.000 €



RENAULT LAGUNA GRAND TOUR 1.6

Motora: 1.6cm3 16V Gasolina

Km: 90.000

Egoera: erabilia

14.000 €



VW GOLF 1.6 TDI CR BM BUSINESS

Motora: 1.6 cm3 TDI Diesel

Km: 50.000

Egoera: erabilia

Prezio guztiz hauek finantziazterik daude.

Jarri ezazu zure publikitatea **BARREN**
edo

www.barren.eus webgunean

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus



BARREN

☎ 943 744 112

Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR



Sigma

jatetxea Elgoibarko Izarrako Santa Ageda taldearen laguntzaile

Gremioen gida

Aroztegiak
Elektrizitatea
Igeltseritza
Iturgintza
Leihoak
Pintura

ITURGINTZA



SANTANA
Igor Santana
ITURGINTZA ETA INSTALAZIOAK S.L.

Urazandi kalea 17, behea
Elgoibar
943 740 530 / 605 714 905
santanaiturgintza@gmail.com



PAGOERROTA
ITURGINTZA
Heniko Enparantza, 10 behea
MENDARO
943 75 60 44 / 628 529 692
Faxa: 943 75 60 37
pagoerrota@pagoerrotaurgintza.com
www.pagoerrotaurgintza.com



Pedro Muguruza Etorbidea, 11
ELGOIBAR
Tel.: 943 254 522
Faxa: 943 254 523
ongi@ongielgoibar.com
www.ongielgoibar.com



San Roke 10-A, behea B
Elgoibar
Floren Cid: 647 463 436
ibamar@euskalnet.net



Azpigoeta 7 behea - Mendara
Tel.: 943 755 062 / 607 755 062
iturgintzatefabelle@hotmail.com



BULEGOA ETA ERAKUSKETA
Pedro Migel Urzuzo, 8
Tel.: 943 740 512 / Faxa: 943 743 585
benda@pagoagasa.com
www.pagoagasa.com

BILTEGIA
San Antolin, 13 - Tel.: 943 740 279
faller@pagoagasa.com

ELGOIBAR

AROSZTEGIAK



Ermuaranbide, 12-14-16
tel/fax. 943 743 116
www.biena.eus
info@biena.eus



Olaso industriagunea, 17 behea
943 531 471
609 054 978
carpinteriaimare@hotmail.com



aroztegia - altzariak - etxe-aldaketak

Kurutz-gain Industriagunea, 9
20650 Mendara
Tel.: 943 756 112 / 636 497 485

www.iraolagoitia.com



Ermuaranbide, 18 - Elgoibar

687 150 226
650 026 631
636 886 322
943 744 225

asimaaroztegia@gmail.com



AROSZTEGIA ETA ENBALAJEAK
Albitxuri industriagunea, 1-O/ 1-P
943 740 547



LEIHOAK



SIGMA INDUSTRIAGUNEA, 223
lodosofj@gmail.com
Tel.: 943 74 34 90

PINTURA



Uparitzaga, 14 - Elgoibar
943 741 552
606 431 120
biok@biokdekorazioa.com

IGELTSERITZA



Urasandi, 22 behea - Elgoibar

Tel.: 605 705 204

Gremioen arteko
koordinazioa.
Pladurrekin ere
lan egiten dugu.



Jardiñeta, 25 behea
EIBAR

Ernesto: 620 060 104
Fran: 600 465 789

ELEKTRIZITATEA



elektrizitatea


Kilimon hiritbidea, 1 - Mendara
943 530 356

iparelek@gmail.com
iparelek@iparelek.com



Uparitzaga 10, 6.B
Elgoibar
karranzaj@gmail.com

Tel.: 943 741 280
Jose Luis: 626 555 999



ELEKTRIZITATEA S.L.
(lehen TAES)

Ego-Gain, 9 AC
20600 EIBAR

Andres: 630 957 345
Raimon: 677 512 462
Bulegoa: 943 200 697

Gremioen gida

Aroztegiak
Elektrizitatea
Igeltseritza
Iturgintza
Leihoak
Pintura